

Basarri, berriz ere

Bere mendeurreneko ospakizunetan behin eta berriz agindu genuen, eta azkenik ere argitaratu ditu *Auspoa* sailak ***Basarri gerraurrean kazetari*** (Auspoa 328) eta ***Basarri gerratean kazetari*** (Auspoa 329) liburuak. 1931tik 1943 arteko Basarriren laurhun idazlan inguru bildu dira beroietan.

Basarri gerraurrean kazetari liburuan, 1931n hasi eta 1935 arte *Euzkadi* eta *El Día* egunkarietan, eta *Argia* astekarian argitara emandako idazlanak bildu dira. Eta ***Basarri gerratean kazetari*** (Auspoa 329) liburuan, 1936tik 1943 arte *Euzkadi*, *El Día* eta *Eguna* egunerokoetan, eta *Euzko Deya* eta *Tierra Vasca*-n emandakoak.

Bigarren liburu honetan jaso ditugu “Trabajadoreetan” ibili zen garaiko (1940–1943) zenbait bertso eta gutun ere, oraindik argitara emateke zeuden-eta.

Ez gara ausartzen Basarriren garai hartako idazlan guztiak jaso ditugula esaten, garai horietan argitara emandakoren bat edo beste geldituko baitzen ez dakigu zein herri-aldizkaritan edo auskalo non. Baina esan dezakegu ahaleginak egin ditugula bilketan, han eta hemen aztarka.

Idazteko gaiak bere senaren arabera aukeratzen zituen, eta arrazoiak inolako kezkarik gabe aitortzen:

Gu idaztera jartzen geranean, geienez gai berdiña izaten degu. Au da, abertzaletasunari buruz eskeiñitako gaia. Eta gu, onetzaz len ere lan asko egin dala ta, gai onetzaz asko idatzi dala ta geure burua gauza berri zale azalduta beste zerbaiten billa joango ote gera? Au baztertuta, beste zerbaiti elduko ote diogu?

Obe genduke mailla horretara iritxita bageunde.

Lehenago ere esan eta idatzia dugu ez zela hotz-hotz idazten zuen kazetaria. Albistea ez ezik, iritzia ere argi eta garbi ematen zuen, honako honetan bezala.

Anaitasuna erakutsi

Erakusbide ederra benetan aurtengo negu illun eta naigabetsu onetan euzko abertzale zintzoak azaldu dutena. Gizonik maitatuena ta gogozkuena izan oi da bere lan egite ederrez edo bere maitasunez beste batzuek ondo jartzen dituana, eta ez itza eta pizza erabilli, oritasunezko gauza asko agindu eta ondorenian ezer ez. Gaurko egunian garbi ikusten dan gauza ori da, guztiok dakizuten bezela. Sozolistuen itzaldi bat naikua da, or entzungo dezute “langillientzat maitetasuna guk degu eta ez bestek, naita naiez langille guztiok onera etorri bear dute beren buruak lasaitzeko bear dan neurrijan, lana egin eta ontasunian bizitzeko eta bear diran aginteak artzeko”. Orrela beste gauza asko.

Gu euzkotarrok bertako bazkide ez geradenok omen gero “kabernikolas” atzeratuak, noski, ta besterik ez bezelakuak.

Egia aitortuko degu, gu besterik ez bezelakoak gera, abendaz, izkuntzaz, oituraz, jolasez eta guztira.

Euzkadi, 1931-12-30

Inork ez zuen behartzen herriko baketik, edo gerrateko lubakietako gogortasunetik idaztera euskaraz eta gaztelaniaz. Baina idatzi egiten zuen, bere burua lasaitzeko, gudako lagunak animatzeko, edo dena galduta ikusi zuenean *Eguna*-n bere herriaz “oldozpenak” egiteko:

Neure erriatzaz oldozten

Zarautz deritzaio, Kantauriren eder pitxi ta Gipuzkoaren txoko disdizaria. Negu aroan bost milla bizilagunen kabi zolia. Uda aroan, amabi milla arterañoakoak tolostutzen dituna.

Zarauzko emakume marazak estu dira. Koltxoi astintzen aurki zenezake mordo ederrik. Aterik ate makilkariak aurkitzearekin ez arritu. Igeltseruak eztizute ere atsedean aundirik. “Nere etxera etorri bear dezu, biar ordea, aztu gabe”... Atzetik tiraka, ordu guzietan.

Batengana jua ta bestearekin utsegin.

Elurra bezain txuri dituzu bizileku geienak. Gertu daude itxuran eskeintzen duanari emateko. Paretxo bat illabeteko kanpotarren egonaldiak, negurako zerbait lasaitasun opaltzen dio langille sendiari. Bai orixe!

Deun Pelaio eguna ateetan. Zaindari eguna. Zarautzeko festa eguna.

Aurreko egunean gaude, bezpera egunean.

Suziriak dinbi ta danba ekiñak dira. Kale nagusian barna ibildeuna ikus zenezake. Eleiz nagusitik urten da Iñurritzaraiño doiaz; Pelaioren elizaxoraiño.

Ola edo fabriketan dezu gaztedia. Suziri otsak anka puntetan jarririk dauzka geienak. Alkarren arotz-maitara ixilka antzean inguratu ta... “Biar San Pelaio”, diote soil soil.

Eldu da festa eguna. Lizarrako dultzaiñeroak bazterrak goizago alaitu dituzte. Amarretan gaitz izango da zaindariaren elizatxoan tokirik artzen. Meza ondoren gaitzago berriz “Marta”nean saldarik inguratzen.

Arratsaldean ikusi egin bear da Iñurritza zelaiko jendearen emana. Dultzaiña, txistu musika, dantzari, aureskulari, zer ez ordea!

Gero zelaitik erriratzeko ibillera, erromeri amaierako etxeratzea, gabeko alaitasuna; janari sendo, zer naizko edari, zer nai gauza... Orren errez aztu ditezkenak ote dira ba? Nik ezin beintzat.

Urtebete baiño ezta igaro goian jarritako guzia ikusten genuanetik. San Pelaioak gaiñean ditugu.

Suziri otsak ezta ola edo fabriketako langillerik alaituko ta poztuko. Ateak aspaldi itxirik dituztelako, ta gazterik aurki ezin ditekeelako.

Eliz jaiak eztute lengo gozotasunik izango, gorrotuaren asegarrizat eliza artuta dabiltzanak gozotasunik eztutelako. Eztira txistu ta musika otsera alaiki dantzatuko, negarra ta beltz jantziak bestek tokirik izango eztualako.

Erriaren aldetik dabil Zarauztar gaztedia, aberri alde burrukatzen itsu-itsurik diardu ango gazte jende mardulak.

An geldituak badira. Geiegi gauz onerako.

Eztizute ordea festa gogorik izango. Geu bezain triste edo areago izango dituzu. Gaztedia guda-oiñetan, amak beltz jantziz etxeetan, negarra ta zorigaitza buru aurtengo San Pelaiotan. Erri gaxoa!

Koltxoi zanpatze ta etxe apainketak zeren itxaropenez aurten? Agur nire erri maitea!

Agur negar ibai biurturik zakuskidan kabi zoruna.

Benetako pake mandatariak or dituzu denboraz.

Zeure semeak biurtuko zaitue zeure onetara. Atzerri otsoak iñoiz ez.

Eguna, 1937-06-12

Basarri idazlearen garairik disdiratsuena hauxe izango zela genion aurkezpen batean. Ez dakigu irakurleak zer esango duen, baina berdintsu pentsa dezake Auspoaren azkenengo ale biak irakurtzean.

Joxemari Iriondo
2014ko iraila